

 **guaixe**

Euskara gara



"Korrika oso emozionantea da, eta barrutik bizitzea oso polita izan da"

MAIALEN BEGIRISTAIN GRADO AEK-REN NAZIO KONTSEILUKO ORDEZKARIA

Korrika berezia izan da altsasuarrarendako barrutik ezagutu duelako; duela bi urte hasi ziren 'Euskara gara' mezua eta lasterketa prestatzen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Korrika gertutik jarraitu du Maialen Begiristain Gradok. Atharratzen hasierako ekitaldiko eszenatokitik jaitzi eta euskararen aldeko lasterketaren lehenengo urratsak eman zituen, eta Bilboko azkenen metroak egin zituen ere lekukoa eskuan. AEKren Nazio Kontseiluko ordezkaria da.

Zer esan nahi du AEKren Nazio Kontseiluko ordezkaria izateak?

AEKren Nazio Kontseiluko ordezkaria naiz, Arabako ordezkaria naizelako. Horrek esan nahi du, momentu honetan, ardura handia. Ardura handia da AEKren ardura dugulako, eta Korrika urtean, gehiago. Lan asko, egia esan. Guri tokatzen zaigu AEKk dituen harreman guztiak egitea. Orduan, Korrikaren bueltan, Ane Elordi koordinatzailearekin edo arduradunarekin batera, eragile guztiakin biltzen gara, Korrikaren mezua zein izango den landu...

Nola bizi izan duzu 24. Korrika?

Oso modu berezian, egia esan. Korrika barruko sekretu guztiak ezagutzen dituzu, baina egia da ere prozesuaren amaiera bezala izan dela. Gu 2024ko urrian hasi

ginen dagoeneko Euskara gara izan den mezu horri bueltak ematen, orduan, prozesu luzea izan da; bi urteko prozesu bat Korrikan amaitzeko. Bestela, oso pozik. Korrika, berez, oso emozionantea den kontu bat da, eta barrutik bizitzea oso polita da. Atharratzeko hasiera, Korrika bera, Korrika bisitatzea joan ahal izatea, Korrika amaiera...

Nola bizi izan zenuen Atharratzeko hasiera?

Urduritasun ikaragarriarekin. Asteazken goizetik Maulen geunden, dena ondo zegoen ikusten, dena martxan zela... Ostegun goizean izan zen jaiki, Atharratzera joan eta jendetza ikusi. Bagenekien jende asko joango zela, baina hainbeste jende joango zenik ez dakit espero nuen edo ez; behintzat ez nuen han, tokian, irudikatu. Oso emozionantea izan zen. Eszenatokitik jaitzi eta jendea ez zela amaitzen, eta jende gehiago eta gehiago. Ekitaldia horrelakoa izatea espero al zenuen?

Nik uste ez nuela espektatiba berezirik, eta horrek agian hunkigarriagoa egin zuen momentua. Baina egia da momentu batean

oinez eta oinez gindoazela eta pentsatu genuen: Baina hau noiz bukatuko da! Korrika hasi nahi dugu! Momenturen batean ere malkoa eskapatzearekin egon zen... **Aurreko egunak mugituak izan ziren. Nola bizi izan zenuen CCOO-ren afera?**

Oso intentsua izan zen eta kudeaketa horiek egitea ez da erraza ez atsegina inorentzat. Egia da tokatu zaigula CCOO-rekin behin baino gehiagotan esatea kezka bizi dugula egoera hau, baina Argiaren erreportajearen ondoren oso argi geratu zen zein zen egoera eta adierazi genien bateraezintasun bat ikusten genuela lekukoa eraman eta euskararen kontrako jarra izatearekin. Epe bat eman genien, 24 ordukoa, eta haiek erantzun ziguten Korrikatik kanpo kokatzen zirela. Guk ez ditugu inoiz Korrikatik kanpo kokatu ez dugulako inor Korrikatik kanpo kokatzen. Guk ikusten genuen bateraezintasuna lekukoa eramatearekin zen. Beti esaten dugu Korrikan edonork parte har dezakeela eta aterki irekia eta eroso izan nahi dugula. Hori kudeatzea ez da erraza; saiatu gara uneoro fokua

Korrikara eramaten. Korrika hastera zihoan eta gero ikusi dugu herri oso bat egon dela erantzuten, pozik, emozioa ikusi dugu, jendetza... eta esaten duzu: ari gara bidea egiten. Babesa sentitu dugu, eta ikusi da. **Esnatu bezain pronto Korrika ikusten zuenatarikoa izara zara? Jarraipena egin duzu?**

Hori egiten zuena naiz. Gure etxean Korrika 24 orduz egon da telebistan. Defektu profesionalagatik noizean behin kentzen nuen. Baina, bai, jarraitu duenatarikoa naiz. Nik uste garrantzitsua dela guk jarraitzea momentu batzuetan kideren bati idazteko eta animo mezuak bidaltzeko. Ez telebistan soilik, tokian toki jarraitzen egon naiz; Maule eta Atharratzeko pasa eta Iruñean izan nintzen, 23an Sakanan izan ginen Nazio Kontseiluko kide guztiok eta asteartean Baztan inguruan Zugarramurdiraino joan nintzen. Osteagun, Korrika Txikia Gasteizen eta ostiralean Korrika Gasteiztik pasa zen eta han izan nintzen. Aurretik Trebiñun ere bisita egitera joan nintzen, eta asteburuan Bilbora. Garrantzitsua da karreraren bertan dauden kideei animoak helarazteko.

Bisita horietan korrika egin duzu?

Nik uste behin Altsasura iritsi planto egin nuela. Arabako kideok animatu ginen lekuko hartze bat hartzea eta Azazetan gelditzen zen bat libre, eta hartu genuen. Hor korrika egin genuen eta gero Gure Eskuren lekuko hartzen nazionalen ere parte hartu nuen, 999an; Altsasuraino.

Altsasun lekukoa erori zenean, zer pentsatu zenuen?

Guk gerora jakin genuen, eta sustoa hartu genuen. Baina beti B plan bat dago, eta plan hori ezagutzen duzunean lasaia

hartzen duzu. Aurreikusten ditugu. Oker ez banaiz lehenengo Korrikan, 1980an, Korrika barruko mezua galdu egin zen, ezin izan zuten mezu hori irakurri, eta inprobistau zuten. Horrek gatazka handia ekarri zuen ez zelako irakurri beharreko mezua eta batzuk ez zuten egoki ikusi, eta sektore batek Korrikan parte hartzeari utzi zion. Orduan, geroztik, beti dago B plan bat.

Euskalategien doakotasuna eskatzen duzue. Zein da egoera?

Bi alde ditugu: ikasleentzat doakoa izatea eta finantziarioa. Oraindik, gaur egun, ikasleek dirua aurreratu behar izaten dute, nahiz eta gero dirulaguntzekin jaso. Errealitatea da diru hori jaso ahal izateko ate asko jo behar dituztela, eta bizi zaren tokiaren arabera da. Araba jota, adibidez, Arabako foru aldundiak aurretik dirulaguntza bat ematen du, baina ondoren HABEri eskatu behar diote, udalari ere... Sakanara bagatoz, adibidez, Nafarroako Gobernuak, Mankomunitateak eta udalek dirulaguntzak ematen dituzte, baina Altsasuren kasuan hori ez dago. Orduan, bidea oso nekeza da eta aldarrikatzen dugun kontuetako bat da ikasleentzat doakotasuna. Horrez gain, gu nolabait zerbitzu publiko bat ematen ari gara eta finantziarioa behar-beharrezkoa da; hori aldarrikatzen dugu eta horretarako uste dugu formula egokiena Euskal Herriko osoko helduen euskalduntzea kudeatzen duen agentzia bat sortzea dela, eta agentzia horrek kudeatzea euskalategien finantziarioa eta ikasleen doakotasuna ere.

Eta nola laguntzen du Korrikak?

Behar-beharrezkoa da oraindik ere AEKren normalizazioan egiten duen lan hori finantzia-



Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Laura Olmos Aristorena
gk@gkomunikazioa.eus
Maider Perkaz Urdain
maider@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Kolaboratzailea:

xxxx

Zuzentzailea:
xxxx

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza
23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GUAIXEK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua





Maialen Begiristain Altsasuko AEK euskaltegian.

tzeko. AEK ezaguna da bereziki euskara eskolak emateagatik, eta egia da horrek hartzen duela gure bolumenik handiena, baina horrez gain itzulpen zerbitzua ere badugu; praktika jarduerak baditugu, hemen Mintzakide bezala ezaguna dena, eta enpresa munduan aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen dugu. Orduan, oraindik ere Korrika beharrezkoa da. Gainera, nahiz eta guk dirulaguntzak jaso, dirulaguntzek zehazten digute zenbat ordu eman ditza-kegun; gure helburua Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso bizitzea da, horretarako ahalik eta jende gehiago euskaldundu behar dugu, eta horretarako dirua behar da finantzatu behar delako erakundeek finantziatzen ez duten hori. Desberdina da finantziarioa EAEn, Nafarroan edo Iparralden. Iparralden are okerrago da finantziario hori. Laguntza hori behar dugu; Korrikak asko laguntzen du. Nahiko genuke helburu ekonomikorik gabeko Korrika bat izatea; momentu honetan oso urrun dago.

Nolakoa izango litzateke?

Ez gara hori pentsatzen hasi, baina hasi beharko dugu momenturen batean. Eskertza moduan; Euskal Herriari zor diogun eskertza moduan irudikatzen dut. Baina ikusiko dugu. Korri-

kak ere ikasleen motibazioan laguntzen du, herritarrek euskararekiko jarrera hartzen... Gaur egun euskararen inguruan ekimenik handiena dela uste dut, orduan, ikusiko dugu jarraituko duen eta nola.

Zer nabarmenduko zenuke aurtengo Korrikaz?

Alde batetik, Euskara gara mezua bera, transmititu nahi izan dugulako euskaltegiaren transmititzen duguna. Euskara aterpe irekia eta eroso dela, guztiok dugula tokia; berdin duela azal koloreak, jatorriak, hizkuntza gaitasunak... Guztientzako tokia dagoela euskararen. Euskarak batzen gaituela eta euskara badela elementu kohesionatzaile bat. Eta hori bada, nolabait, euskaltegiaren ikusten dugun errealite bat. Potentzia da eta horri heltzea garrantzitsua da. Gero nabarmenduko nuke Korrika aurtengoa ez dela martxoaren 29an amaituko; hamabigarren eguna deitu diogunarekin jarraituko dugu aurrera, eta euskaltegiak ditugun herri guztie-

"Korrikan edonork parte har dezakeela esaten dugu, eta aterki ireki eta eroso izan nahi dugu"



Maialen Begiristain Arabako AEK kideen lekuko hartzean.

tan euskara eskola bat doan eta herritarrentzat mintzodromo bat eskainiko ditugu. Korrikak ematen digun emozio horretatik pausu hori eman dezan edo aukera izan dezan jendeak. Gure helburua ahalik eta jende gehien euskalduntzea izanda, gertuagotik eman nahi dugu: euskaltegiak zabaldua eta eskola bat

"Gure helburua Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso bizitzea da"

doanik eskainita herritar guztiak ezagutu dezaten beldurrak egon daitezkeelako, ahalko dut, ezin- gero dut... Interesgarria da edozein ikasleri galdetzea nola bizi duten euskara ikasteko prozesua. Saiatzen gara ahalik eta atsegina izaten; gure metodologia komunikatiboa eta praktikoa da, atsegina izaten da.

"Korrika beharrezkoa da; ikasleen motibazioan ere laguntzen du"

Zein da euskaltegien egoera?

Nik uste azken urtetan geroz eta ikasle gehiago dugula, geroz eta jende gehiago hurbiltzen dela gurera. Euskal Herri osoan 14.000 ikasle inguru daukagu ikasturteko. Horrek erakusten du jendeak ikasi nahi duela. Uste dut ez dela jendearentzat irisgarria eta hori ere aldarrikatzen dugun kontu bat da. Irisgarria izatea, eta horretarako doakotasuna eta informazioa dago. Euskal Herrira iristen den jende askok ez daki beste hizkuntza bat dugula eta dakitenek ere ez dakite non ikas dezaketen. Informazio hori zabaldu behar da eta gizarte osoari dagokigu hori egitea. Orduan, uste dut ez gaudela momentu txar batean; egia da finantziarioekin izugarriko zalantza dugula eta ezegonkortasun horrek eragiten du egunerokotasunean, baina badago nor euskaldundu, jende asko dago euskalduntzeko prest, gogotsu gaude. Guk ateak zabalik ditugu, eta beste kontuak soluzionatzeko bidean gaude dagokion erakundeekin.

24. Korrikan bizi izan duzun unetxoren bat?

Parte izatearen harrotasun hori eta kide guztiek zenbat lan egiten duten eta horren parte sentitzea. Azpimarratzekoa da AEKko kide guztiok egiten dugun lana. Denok. Batzuk presentego gaude kalean, baina eskualdez eskualde Korrikaren ardura hartzen duten horien lanik gabe, Korrikarik ez litzateke egongo. Uste dut oso garrantzitsua dela. Horren parte izatea nik uste izan dela nabarmentzekoa.

24. Korrikaren ondoren, zer?

Oporretatik bueltan hasiko gara berriro hurrengo Korrika non hasiko den erabakitzen eta hurrengo Korrikarako mezua zein izango den landu nahian. Gainera, 25. Korrika izango da eta mereziko du.

Korrikaren abestirik gogokoena?

Ez dakit zer esan. Agian gustukoena baino bereziena Zirkorrika justu AEKn hasi nintzenez lehenengo Korrika izan zelako eta oso presente dut kanta entzun genuen momentua. Berezia izan zen.

Eta gogoan duzun Korrikaren bat?

Nik uste denak direla bereziak. Bakoitzak bere puntua dauka, baina guztiak izan dira bereziak eta bere moduan. Aurtengoa oso berezia ere ardura berri batean eta desberdina.

BALORAZIOA

"Jendeak Korrikarekin gora egiten du"

AITZIBER IRIGOIEN IRIGOIEN ETA IÑAKI RUBIO MENDOZA SAKANAKO KORRIKA ARDURADUNAK

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

AEKk antolatutako Korrikak Euskara gara leloa zabaldu du Euskal Herri guztian hamaika egunez. Ibarreko bi arduradunak "pozik" daude. Ziurtatu dutenez, "Korrika arrakastatsua izan da". **Argazki ederrak Korrikak, ezta? Iñaki.** Bai. Jendetza bildu da. Sakanan eguraldiak eta orduak lagundu du. Eta horrek ahalbidetu du argazki oso-oso politak egoteak.

Arnasgunea euskararendako Korrika?

Aitziber. Hori nahi dugu. Baina ez dugu lasterketa hutsean geratzea nahi. Horregatik aurtan 12. eguna ekimena antolatzen ari gara: apirilaren 22an euskara eskola bat dohainik emanen dugu, komunitatea euskararen sartzeko asmoz. Horretaz aparte, Euskal Herri osoan mintzodromoak antolatuko dira. Ibarrekoa Altsasuko Foru plazan izanen da, maiatzaren 2an, 12:00etan. Sakandar guztiak parte hartzerantz gonbidatuta daude. Oso gai arinen inguruan hizketatuko gara, esaterako: patata tortilla tipularekin edo gabe.

Ahotan euskara Korrika?

I. Bai, hori nahi dugu. Korrikaren helburua da AEK eta haren jarduna laguntzea, euskara ahotan ibil dadin.

Askotan entzun duzue kanta?

A. Bai. Nahi gabe ere ateratzen zaigu. Hasieran, beti bezala: "kanta hau ez dakit zer, ez dakit zenbat". Eta nahi gabe ere, abesten bukatzen dugu.

I. Eguneko edozein momentutan abestia buruan: dutxan, etxean, lanean... ateratzen da.

Asko entzundako konturen bat?

A. Hunkigarria dela, zirraragarria... Jendeak Korrikarekin gora egiten du. Eskerrak ere eman dizkigute. Gainera, aurtan egunez pasatu denez, jendea poz-pezik zegoen. Bereziki horregatik, eta eguraldiak asko lagundu zuen. Talde handian parte hartzeak edozein motibazioz du aurrera jarraitzea.

I. Askotan galdetzen digute furgonetara nola igo edo nola jaitsi, zenbat furgoneta dauden... Guzti barrutik nola kudeatzen den jakin-mina dago.

Arrakasta erraz kudeatzen da?



Iñaki Rubio Mendoza eta Aitziber Irigoien Irigoien, Sakanako Korrika arduradunak.

I. Euskararena, Korrikarena, AEKrena, bai.

A. Azkenean protagonistak guztiak gara. Guk Ziorditik Irurtzuneraino hori guztia bizitzeko aukera izan dugu. Guretako intentsuagoa da. Baina poztasuna ematen duena jendearen alaitasun eta parte hartzeko gogo hori da.

Aldaketarik eragingo du euskalerriarren?

A. Hori nahi genuke. Horregatik 12. eguna ekimena, Korrikak sortzen duen olatua aprobetxatzeko eta euskara gure ahotan gehiago entzun ahal izateko. Euskararen munduan ez dagoen jendea euskarara erakartzeko. Gero ikusiko ditugu emaitzak.

Ikasleen aldarlean eragiten du Korrikak?

I. Emozioa sortzen du. Data heltear den heinean galderak egiten dituzte. Korrika hurbil dagoen momentua ikasleengan sumatzen da, emozio pixka bat sumatzen da.

Argitan, egunez, Korrika. Hurrengoa?

A. Nafarroako arduradunen balorazio bileran esanen dut

"Ez dugu lasterketa hutsean geratzea nahi. Horregatik '12. eguna' ekimena antolatzen ari gara"

hurrengoan ere ahalegin bat egin dezagula egunez pasa dadin. Ez dezagun 15 urte itxaron egunez pasatzeko.

Ahazu ezinezko kontakizunik?

I. Euskal Ardi Moztaileen Elkartek ardia atera zueneko. Baina lekuko hartze bakoitzak bere xarma du.

Arnasa euskararendako, Korrika?

I. Urtean zehar egiten den lana da euskararen arnasgunea. Bereziki, hiztun guztiok hitz egitea da benetako euskararen arnasgunea. Korrika bulkada bat da. **A.** Eguneroko horretan euskararen erabileran laguntzeko Mintzakide programa dago. Sakanan 13 talde daude. Asteazken ordu bat da, eta dohainik. Izena emateko 600 48 20 24 telefono zenbakira hots egin daiteke.

Azken edizioa Korrikak, noiz?

I. Korrikaren izaera laster aldatzea espero dugu. Horrek esan nahiko baitu euskararen osasuna eta euskara irakasteko baldintzak ongi egonen direla.

A. Zentzu horretan, ongi legoke. Baina Korrika gure kulturaren parte da eta laster egiten jarraituko dugu beste arrazoiren baten alde, Korrikan sortzen den komunitatea birstortzen.

I. Formatuak oso erantzun positiboak du Euskal Herrian. Formatuak jarraituko duela uste dut, ez dakit helburuak aldatuko diren. Euskararen egoeraren arabera izanen da.



Oihane Rodrigo Vicente Guaixe Kidea lekukoarekin. KORRIKA

"Tokatu zaidana mundiala izan da; momentu oso berezia"

OIHANE RODRIGO VICENTE GUAIXE FUNDAZIOAREN LEKUKOAREN ERAMAILEA Guaixe Fundazioko lekukoa eraman zuen, 1.000.a

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Guaixe Fundazioak lekukoa eramateko, azken urtetan, zozketan parte hartzen duten bazkideen artean zozketa egin du. Aurtan Arbizon bizi den Oihane Rodrigok izan du ohorea. 1.000. lekuko hartzean hartu zuen lekukoa, Eginotik Ziordirako bidean, guai-xetarrok-in batera.

Noiztik zara Guaixe Kide? Zergatik?

Egia esan, ez dakit ziur. Aurtan 21 urte egingo ditu Sakanara iritsi nintzela, Atarrabiatik. Atarrabian euskara ikasi nuen eta faltan botatzen nuen euskarazko komunikabide bat. Ibarreko informazio guztia ateratzen zaizu, kultura mailan... Ideia polita iruditu zitzaidan, eta bazkide izanda hemengo jendea aurrera egiten laguntzen duzu, euren proiektuak aurrera eramaten eta euskara bultzatzen, nola ez. Politza da bazkide izatea. Astero zer plan dauden ikustea eta horren arabera zeure burua eta familia antolatu. Aurrerapauso bat iruditzen zait. Kulturalki gauza asko daude eta batzuetan ez dugu ikusten zer dagoen; baita mendian, kultur egitasmoak, zinema, beste-lako ekimenak...

Guaixe Kideen zozketetan parte hartzen al duzu?

Ez. Batzuetan pentsatu izan dut: tokatuko balitzait... Baina horrelako gauzak ez zaizkit inoiz tokatzen, eta horregatik ez dut parte hartzen.

Eta Korrikaren lekukoaren zozketan zergatik parte hartu zenuen?

Ikusten nuen modu batean edo bestean ezingo nuela Korrikan parte hartu, eta ez zitzaidanez tokatuko, bidaltzea pentsatu nuen, eta listo. Korrika pasa aurretiko ostegun horretan telefonoa begiratu eta telefono zenbaki arraro batek deitu zidala ikusi nuen, eta gero WhatsApp: Lekukoa eramatea tokatu zaizu! Negar batean hasi nintzen. Seme-alaba parean zeuden eta ea zer gertatzen zitzaidan galdetzen zidaten; lekukoa eramatea tokatu zaidala! Karma nirekin dago.

Nolakoa izan zen eguna?

Momentuan baretzea kostatu zitzaidan. Astelehenean ordua hurbiltzen ari zela eta gora eta behe-

"Jakín nuenean negar batean hasi nintzen; lekukoa eramatea tokatu zaidala!"

"Noizbait pentsatu izan dut: lekukoa eramatea sekulakoa izan behar da; gero ikusten zara hor"



"Lekukoa eramatea hainbeste jendearen lana aitortzeko modu bat izan da"

MARI PAZ, JAVIER ETA JAVIER ALTSASUKO UDALEKO LEKUKO ERAMAILEAK

"Emozionatuta eta ilusioz" hartu zuten Altsasuko Udalaren lekukoa eramateko ohorea; betirako gogoratuko den unetxo bat bizi zuten

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasuko Udalaren lekukoa, 1015, Mari Paz Barandiaranek, Javier Casteigek eta Javier Ziordiak eraman zuten, herrian euskararen alde egindako lanagatik omenaldia jaso zuen Barandiaranek, eta Ziordiak esan duen bezala: "Hirurok lekukoa eramatea hainbeste jenderen lana aitortzeko modu bat da". Altsasuko Euskaltzaleen taldeari eskerrak eman diote aitortzagatik. Nahi gabe, 24. Korrikaren unetxo baten protagonistak izan ziren: lekukoa erori zen. "Pasadizoa" kontatzeko izango dute.

Nola hartu zenuten Altsasuko Udalaren gonbidapena eta omenaldia? Mari Paz Barandiaran. Harrituta; erabat harrituta. Ez nuelako pentsatzen inoiz lekukoa eramateko horrelako eskaera izango nuenik. Emozionatuta.

Javier Casteig. Niretako erabateko ezustea izan zen. Ez nuen inondik inora espero, baina ilusioa bai. Udaleko ordezkariari ere esan nion sekulako ilusioa egiten zidala. Ez nuen inoiz lekukoa eramaterik espero.

Javier Ziordia. Ez nuen batere espero. Mari Paz Barandiaranek euskararen alde egindako eta egiten duen lanagatik aitortza merezi duela iruditzen zait. Urteetan jende asko ibili da berarekin Altsasun euskalgintzan, eta hirurok lekukoa eramaten hainbeste jendearen lana aitortzeko modu bat iruditzen zait.

Korrikan parte hartu izan duzue, ezta? **Barandiaran.** Bai, asko. Hasierako Korrikan ibili nintzen. Garai horretan AEKko irakaslea nintzen eta buru-belarri aritu ginen. 1980ko Korrika horretan ez genuen sinisten ongi atera zitekeenik; gauez, egunez... Harrituta geunden. Beti ondoan

Barandiaran. Bai, asko. Hasierako Korrikan ibili nintzen. Garai horretan AEKko irakaslea nintzen eta buru-belarri aritu ginen. 1980ko Korrika horretan ez genuen sinisten ongi atera zitekeenik; gauez, egunez... Harrituta geunden. Beti ondoan

Barandiaran. Bai, asko. Hasierako Korrikan ibili nintzen. Garai horretan AEKko irakaslea nintzen eta buru-belarri aritu ginen. 1980ko Korrika horretan ez genuen sinisten ongi atera zitekeenik; gauez, egunez... Harrituta geunden. Beti ondoan



Javier Casteig, Mari Paz Barandiaran eta Javier Ziordia, lekukoarekin.

egon naiz; AEKn lanean nenbilen bitartean eta gero lanetik libre geundela Korrikara korrika egitera.

Casteig. Bai, betidanik ere bai. Gertu, ondoan, eta parte hartzen. Egia da azkenekoetan gauez pasatuta gehiago kostatzen dela. Aurtengoa ezin egokia izan da. **Ziordia.** Bai, ez nahi bezainbeste, lan kontuagatik, baina Korrikan korrika egitea poza da niretzako.

Lekukoa eramaten zenutela lehenengo aldia izan da?

Casteig. Nire kasuan, bai. Gertu-gertu egonda naiz, baina eramaten lehenengo aldia.

Barandiaran. Nire kasuan ere. Hortik asko ibili gara, baina eraman inoiz.

Ziordia. Lehen aldia da. **Zer sentitu zenuten?**

Barandiaran. Urduritasuna eta emozioa; emozio handia... eta begira zer gertatu zen!

Casteig. Hartzen duzunean zurrunbilo batean bezala sartzen zara.

Ziordia. Poz handia ere. **Korrikaren unetxo historiko batea parte hartu zenuten: lekukoa erori zen.**

Barandiaran. Guk lasai hartu genuen, irribarrez. Papera ikusi nuen eta pentsatu nuen: ai ama! Hau oso inportantea da! Eskuan parte bat neukan eta goikoa erori zen. Batek esan zidan irratian entzun zuela Korrikaren historian zehar dezentente erori dela, baina orain gertatzen da grabatzen dutela.

"Guk lasai hartu genuen, irribarrez; papera ikusi nuen eta pentsatu nuen: ai ama!"

Casteig. Ti-ta konpondu genuen. Gaur egun dena grabatzen denez, bestela mugikorrekin ere grabatzen dute... Ez dago ihesbidetik.

Ziordia. Oso azkar konpondu zen dena, anekdota bezala gelditu da.

Nola konturatu zineten?

Casteig. Suposatzen dut ikurri-na erortzean konturatu ginela; goiko parte hori erori zenez, suposatzen dut hori ikusi nuela eta gero papera lurtean... Bi gauza ti-ta hartu eta konpondu genuen. Gero arduradunen bat agertu zen.

Eta hori guztia gelditu gabe.

Barandiaran. Bai, bai! Ti-ta izan zen. Ni lasai joan nintzen etxera, eta gero albistegietan atera zen; euskaraz, gaztelaniez, irratian... Hor konturatu nintzen zer izan zen.

Korrika jarraitu duzue?

Barandiaran. Bai. Mezua gustatu zait, eta zazpi gazte ateratzea. Beti jende inportantea izan ohi da, eta desberdina izan da. Esan zuten lehenengo bilera Altsasun egin zutela.

Casteig. Gaur egun jarraipena egitea oso erraza da: telebistak, Internet... Gainera, uste dut aspaldiko parteko partaidetzarik handiena izan dela. Hori iruditu zitzaidan. Atxikimendu emozionala badago, praktikoa beste gauza bat da. Baina, bai, interes handiarekin jarraitu dut.

Ziordia. Bai, aurtun gainera aplikazioarekin egin dut jarraipena, eta horrela ibilbide osoan zehar gertu daukazu Korrika.

Zein da euskararen egoera Altsasun? Aldatu da?

Casteig. Ikusten da emozionalki badagoela atxikimendu hori, praktikoki eta erabilpenean beste kontu bat da. Egoera eta egoerak daude. Ni gogoratzen naiz haur nintzanean ez zela euskara existitzen. Hitz solte batzuk besterik ez zeuden. Gaur egun, ezagutza badago eta lehenengo egoerarekin alderatuta erabilpenean sekulako aldaketa egon da. Etorikizuna, ikusi behar. Ea Korrikak ekartzen duen olatu horrekin...

Barandiaran. Altsasura etorri nintzenetik orain dela 51 urte aldaketa handia ikusten dut. Hiru pertsona nituen euskaraz hitz egiteko, eta orain gazte guztiek euskaraz dakite.

Casteig. Banakako harremantaukerak daude, gero taldean desberdina da.

ra aritu nintzen; Etxarrira etorri nintzen gauza batzuk egitera eta Goizederrek, Guaixe Fundazioko koordinatzaileak, deitu zidan ea zer ordutan geldituko ginen galdezko, eta nahi duzunean! Baina iristea ja! Nerbioak jota eta pisagureak jota Ziordiko gasolindegira joan nintzen eta kafe bat eta galleta bat hartu nuen, kaloriak erreko nituenez, hartu behar zirelako aurretik. Pixka bat baretu nintzen. Aurretik begiratu nuen non zegoen kilometroa; egin nuen lehenbiziko gauza izan zen Korrikako app-ean begiratzea non zen. Kotxea denborarekin utzi nuen eta lasai-lasai joan nintzen. Orduan hasi ziren Goizeder eta Guaixeko guztiak etortzen, eta nerbioak jota; puxikak gora eta behera, Goizeder irriarekin konektatzen oso urduri...

Korrika iritsi zen, Guaixeko lankideek hartu zuten lekukoa, eta gero zuri eman.

Arraroa da. Noizbait pentsatu izan dut: lekukoa eramatean mundiala izango da. Gero ikusten zara hor, petoa, lekukoarekin, furgoneta parean duzula ia irensten duzula eta esaten dituzutela mantsoago joateko... Nik nahi dut mantsoago joan, baina ezin dut! Momentu oso berezia da. Oso.

Normalean, korrika egiten duzu, ezta?

Gemak esan zidan lasai egingo nuela korrikalari fina naizela eta nik, bale, eskerrikasko! Korrika egiten dut osti txarra ateratzegatik, eta esaten dituzutenean kategoria duzula, bada eskerrik asko!

Orain zozketetan parte hartuko duzu?

Bai, bai! Hasiko naiz. Tokatu zaidana mundiala izan da.



ZIORDIA

"Gure artean gehienetan harremana euskaraz izaten da"

IZAR RAZKIN OLMEDO AMARAUNA

Amaraunak gune autogestiona-tuak 10. urteurrena azaroaren 29an ospatu zuen. Gunearen zati batean kide batzuk bizi dira. Gainera, eraikin handi bat dute, garai bateko komentua, eta hori herri mugimenduko talde eta eragileei eskaintzen diete, tailer, jardunaldi eta bestelakoak egiteko. Urtero urteurren festa ospatzen dute Amaraunakoek, batez ere, bazkideekin batera ospatzeko. Bazkide horiek laguntzen dute Amaraunak aurrera segitzen. Hilean behin egiten dugu auzolana eta bazki-

de batzuk hurbiltzen dira. Giro polita sortzen da. Bazkide nahi duenak gurekin harremanetan jarri beharko luke, 679 55 37 34 telefono zenbakira hots eginez edo amaraunaziordi@gmail.com e-posta helbidera idatziz. Fitxa bat bete behar da, 70 euro ordaindu behar dira.

Korrikaren leloa 'Euskara gara' da. Nola zarete zuek euskara?

Astero egiten ditugu gure asanbladak, bertan bakoitzak dauka bere ama hizkuntzan hitz egiteko aukera eta eskubide osoa. Horretarako itzultzaile figura

dugu. Bermatu egiten dugu norberak euskaraz hitz egin nahi badu, aukera izan dezan.

Zergatik erabaki duzue Korrikan parte hartzea?

Euskara garelako eta euskararen alde egin behar dugulako.

Zer sentitzen duzu Korrikan parte hartzean?

Emozio handia. Gerturatzen ari denean musika entzuten duzu... oilo-ipurdia jartzen zaitu azala eta emozio momentu oso hunkigarria da. Aurten ez dut korrikarik egingo, ama izan naizelako duela gutxi eta ezin dut, baina animatuko ditut.

Euskararen aldeko zein lelo gustatzen zaizu gehien?

Leloak oihukatzea naiz, emozio horretan... Edozein lelo oihukatzen dut, gustura.

Zer garrantzia du euskarak zuen barne dinamikan?

Egunerokoan familia batzuk bizi gara eta euskara presente dago, erabat. Pertsona bakarra dago euskaraz hitz egiteko gaitasun gutxiagoarekin, baina berez de nek ulertu egiten dugu eta gure artean gehienetan harremana euskaraz izaten da.

Korrikaz aparte, zer gehiago behar du euskarak?

Euskara egunerokotasunean presente egotea eta, bereziki, kontzientzia gehiago.

Zer ematen dizu Korrikak?

Euskararekin bat egiteko aukera, euskaldun izatea eta euskaldunon eskubideak bermatzeko borroka horretan nirea eta gure proiektuaren alea jartzea.



ETXARRI ARANATZ

"Ez erlaxatzea, behintzat, eta denon artean lanean segitzea"

GOIZEDER BELTZA IGOA BIKAIN GARAJEKO ARDURADUNETAKO BAT

Autoak konpontzeko tailerra da Bikain garajea. Mekanika eta karrozeria arloak lantzen dituzte. Hasi eta bukatu egiten dituzte autoak.

Korrikaren leloa 'Euskara gara' da. Nola zarete zuek euskara?

Azkenean denetatik gaude, baina gehiena euskaraz hitz egiten dugu. Ahal den gehiena euskaraz egiten dugu; bagaude euskaldun zahar-rak, euskaldun berriak eta baten bat AEKn izena emanda ere. Beraz, denetatik.

Zer sentitzen duzu Korrikan parte hartzean?

Betidantik hartzen dugu lekukoa. Eta hunkitu egiten gara lekukoa hartzean, beti dago norbait desiotan lekukoa hartzeko.

Euskararen aldeko zein lelo gustatzen zaizu gehien?

Denak ditut gustuko. Aurten harrituta nago eguraldi ona dagoelako. Eta, egunez!

Korrikaz aparte, zer gehiago behar du euskarak?

Euskarak behar du denon laguntza eta denon kolaborazioa. Askok egiten da baina asko gelditzen da egiteko. Ez erlaxatzea, behintzat, eta denon artean lanean segitzea.

Zer ematen dizu Korrikak?

Korrikan parte hartzea motibazio bat da. Zeren bestela, esan eta esan... eta gero ez baduzu ezer egiten ba... behar da. Ikusten dituzu lankideak, bezeroak, denak kolaboratzen eta hori puntu ezberdina da.

ALTSASU

"Duela urte batzuk erabaki genuen asanbladak-eta euskaraz egitea"

IRAIZ GOÑI IRAURGI ETA JON GARZIANDIA LASA MECALSAKO LANGILEAK

Garabiak, travellingak, lumak... egiten dituzte Gerra Hermanos enpresa taldean. Mecalsa horietako bat da, Altsasun dagoena. Han garabietarako piezak egiten dituzte. Taldeak beste lantegi bat du Bakaikun. Horiez aparte, Gipuzkoan beste bi lantegi ditu taldeak.

Korrikaren leloa 'Euskara gara' da. Nola zarete zuek euskara?

Alde horretatik zorteko gara, gure enpresan, Sakanako jendeaz aparte, Goierriko jende asko dagoelako. Eta bizipoza ematen du enpresan euskara asko entzuteak. Alde horretatik, gustu-

ra. Giro nahiko euskalduna dugu. Duela urte batzuk erabaki genuen asanbladak-eta euskaraz egitea, garai batean gazteleraz egiten zirelako.

Euskara plana fabrian bertan egiten dute enpresa batzuetan. Zuenen, halakorik ez?

Ez dakit hori preseski gure fabrian dugun. Baina guk hitzarmenetan beti sinatzen dugu dena elebidun izatea, eta errespetatzen dute.

Zergatik erabaki duzue Korrikan parte hartzea?

Euskaltzale giroa dago, talde bat animatu ginen Korrikako



lekuko hartzea erostera. Guztiek parte hartzen dute, pote moduko bat jartzen dugu. Aurreko bi edizioetan animatu ginen, aur-

ten ere bai... eta horrela animatzen gara.

Zer sentitzen duzu Korrikan parte hartzean?

Izugarrizko poza. Bi urtez behin poza handia. Hemen barre egingo dugu lankideekin. Eta ea Altsasutik Etxarri Aranatzera heltzen garen.

Euskararen aldeko zein lelo gustatzen zaizu gehien?

Ez dakit nola, baina Korrikan ateratzen ditugu leloak oihukatze indarrak. Bi urteaz behin da, baina beti ilusio berarekin etortzen gara. Aurten ere garra-si egin dugu. Denak dira onak.

Korrikaz aparte, zer gehiago behar du euskarak?

Nafarroan leku guztietan izatea ofiziala. Ea lortzen dugun. Eta euskara egunerokotasunean ibiltzea, hori baita ez galtzeko modu bakarra.

Zer ematen dizu Korrikak?

Ikaragarritzko poza eta ea poztasun hori mundu guztiari kutsatzen diogun.



LAKUNTZA

"Garrantzitsua delako parte hartzea eta euskara laguntzea"

IORITZ ESKUDERO GANBOA ETA GAIZKA SAGARZAZU IBARGUREN
LAKUNTZAKO BILTOKI GAZTETXEA

Lakuntzako Biltoki gaztetxeak aurten 58 urte beteko ditu. Elizaren atzeko elkarteak urteak daramatza, beraz, gazte lakuntzarrak biltzen. Urteurrena ospatzeko "apirilaren 11n sekulako festa dugu Biltokin eta Lakuntzako plazan eta guztiak gonbidatuta zaudete". Goizean Lakuntzako kalba joko tradizionalean ariko dira nahi duten guztiek. Bazkaria, gurdi-poteoa

eta graffiti tailerra izanen dira. Eguna despedituta kontzertu apartak antolatuta dituzte.

Korrikaren leloa 'Euskara gara' da. Nola zarete zuek euskara?

Normalean kostatzen zaigu euskaraz hitz egitea, baina hitz egiten dugu gure artean. Orain arte lekuko hartzea Lakuntzako Pertza elkartearekin batera hartzen genuen, erdibana. Baina aurten ikusi dugunez laguntza

gehiago emateko prest geundela, nork berea hartu du.

Lekuko hartzea erosteko zer egiten duzue Korrika bazkari edo afariren bat?

Urtean zehar hainbat ekintza egiten ditugu eta diru horrekin ekimen hauetan parte hartzen dugu.

Zergatik erabaki duzue Korrikan parte hartzea?

Euskararen alde egiteko, garrantzitsua delako parte hartzea eta laguntzea, euskara, badirudi, beharantz doala. Beraz, lagundu beharrekoa da.

Zer sentitzen duzu Korrikan parte hartzean?

Oso sentsazio ona, laguntzarekin eta parte hartzearekin. Azkenean 50 pertsona gabilta hemen gure lekuko hartzean, eta momentu ona da.

Euskararen aldeko zein lelo gustatzen zaizu gehien?

Leloak oihukatzen ditugu, jakina, gazteria beti topera. Gehien gustatzen zaiguna? Guretako denak.

Korrikaz aparte, zer gehiago behar du euskarak?

Egunerokotasunean gehiago hitz egitea, ikastolei laguntza ematea, txikiei irakastea eta euskaraz hitz egitea...

Zer ematen dizu Korrikak?

Izugarrizko emozioa. Egun oso ona da. Indarra ematen du.



IRURTZUN

"Batzuetan gutxi batzuk garelako ematen badu ere, asko gara"

MADDI URRA ALBIZU, REBEKA CUEVAS REDECILLAS ETA BLANCA ILUNDAIN ETXEBERRIA IRATXO ELKARTEA

Maiatzean 42 urte beteko ditu Iratxo elkarteak. "Geroz eta indar gehiago hartzen ari da", lehendakariaren arabera, "gazte asko sartzen ari gara azken urteotan. Indarberritzen ari da". Bazkidetzan "auspotzea" izan dela adierazi du lehendakari ohiak, "zeundenak gehi berriak, guztiok osatzen dugu elkarteak". Lehen 107 ziren, orain 135 bazkide dira eta bazkide izateko eskaerekin itxaron zerrenda dute. Elkarteak botxategiaz aparte, mendi taldea eta kultura batzordea ditu. Beti bada zerbait, eta orain, buru-belarri, Sakana-ko Ibilaldi Handiaren antolaketan ari dira.

Korrikaren leloa 'Euskara gara' da. Nola zarete zuek euskara?

Euskaldun asko gaude. Sartu garen gehienak euskaldunak gara. Baina gure artean euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dugu, eta ez da euskara entzuten. Gutxitan. Adinduekin hitz egiterakoan, beharbada. Bestela, juntakideek bai. Asanbladak ele bitan egiten dira, beti lehen hitza euskaraz. Elkartearen sartzen zaren momentuan euskararen alde egiteko prest egon behar zara. Horretan gabilta. Kuadrilla batzuk, behintzat, euskaraz aritzen dira. Eta emakumezkoek

gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dute. %60 euskaldunak gara. Gainera, Mintzakide talde bat bertan biltzen da euskara praktikatzera.

Zergatik erabaki duzue Korrikan parte hartzea?

Euskararen alde egiten duen ekimen polita da. Iratxok betidanik parte hartu izan du. Euskararen gure hizkuntza da.

Zer sentitzen duzu Korrikan parte hartzean?

Hunkigarria eta berezia da. Poza. Ilusioa. Elkartasuna. Adin guztietakoak elkarrekin ikustea zerbait berezia da. Eta lekukoa eramatea izugarri hunkigarria da.

Euskararen aldeko zein lelo gustatzen zaizu gehien?

Betidanik entzun duguna: tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika. Hemen gaude euskararen alde! Edo Irurtzun ere euskaraz.

Korrikaz aparte, zer gehiago behar du euskarak?

Konpromiso pertsonala, laguntza, elkarrekintza eta bulkada kolektibo bat.

Zer ematen dizu Korrikak?

Energia. Batzuetan gutxi batzuk garelako ematen badu ere, asko gara. Euskarak batzen gaitu. Euskararen aurrera egiten ari da. Eta munduari mezua zabaltzen ari gara.



ETXEBERRI

"Korrikak pixka bat jarraitzeko indarra ematen du"

ALONDRA AMOZTEGI MOYA ETXEBERRIARRA

Etxeberririk 73 biztanle ditu eta Korrikan parte hartzea erabaki zuten. Aurten Etxeberriko Kontzejuak eskuratu zuen lekuko hartzea. Herritarrek jakinaren

ganean jarri zituzten eta Korrikan parte hartzeko antolatuta ziren. "Etxeberrin jende gazte asko dago eta euskararen kontzientzia badago. Hala ere, lana

egiteko badago ere. Ea Korrika-rekin gehiago animatzen garen".

Korrikaren leloa 'Euskara gara' da. Nola zarete zuek euskara?

Hitz egiten, festetan ere pixka bat bulkada ematen diogu, eta halako gauzetan.

Zergatik erabaki duzue Korrikan parte hartzea?

Horrelakoetan parte hartzea oso garrantzitsua da, euskarari bulkada bat emateko.

Zer sentitzen duzu Korrikan parte hartzean?

Emozio handia. Heltzen denean urduri jartzen naiz eta, ondoren, sekulako plazera, disfrutatzea.

Euskararen aldeko zein lelo gustatzen zaizu gehien?

Denak. Baina Tipi-tapa, tipi-tapa Korrika!, agian, politena.

Korrikaz aparte, zer gehiago behar du euskarak?

Bulkada euskaltegiaren. Eta egunerokoan beti erabiltzea, bai lanean bai kalean... toki guztietan.

Zer ematen dizu Korrikak?

Poztasuna. Eta pixka bat jarraitzeko indarra, euskararen parte garelako adierazteko.

LEKUKOAREN MEZUA

24. Korrikako mezua: "Euskara gara eta hemen gaude"

Oier Iñurrieta, Oihana Arana, Elene Mengyu Larrinaga, Beñat Jusue, Aitzol Gil de San Vicente, Xalbat Alzugarai eta Leire Casamajou EUSKAL HERRIA

Euskara gara eta hemen gaude. Eskutik eskura trazatu dugu gure herriaren gorpuzkera.

Hatsanturik, baina aitzina eraman gaitu gorputzak. Urrats bat eta bestea, lurrean errotuz.

Korrika dabilenean izerdiz betetzen den gorputza da gurea. Borrokaren eta desiraren aztarnak harro daramatzana. Korrika dabilenean tau-padak azkartzen zaizkion gorputza da gurea. Asaldatau egiten dena. Nekatu egiten dena. Hunkitu egiten dena. Korrika dabilenean indarberritzen den gorputza da gurea. Eten-gabeko eraldaketak aberasten duena. Beti aurrerantz doana.

Sohütatik, Urepeletik, Tuteratik, Hendaiaatik, Barakaldotik, Gasteiztik, Eskoriatzatik... pasatu den gorputz bat egin dugu. Basa, asfaltoa, belarra, hareea... zapaldu dituen. Lur zati bakoitzeko eleak ikasi dituen. Pauso sendoz dabilela dirudi, baina zalantzia ere bada gorputza. Birpentsatu zalea, beharrezkoa denean iritzia aldatzen duena.

Gure gorputzak esan nahi duen dena euskaraz da, baina ez du esan nahi bakarrik euskara. Egin nahi du berba nekeaz, pozaz; botereaz, minaz. Egin nahi die orro batzuei eta irri besteei.

Zenbat gara? galdetzen genuenok nortzuk garen ere jakin nahi dugu orain. Nondik garen, zergatik egiten dugun hau guztia, zerk sortzen duen gutasuna. Euskara gara diogu, ez euskara naiz. Komunitateaz ari gara. Beso zabalik dagoen gorputzaz, zeinak leihoak dituen begietan.

Urrats bat eta bestea, gorputz bat egin dugu denona. Ez dezagula ahaztu hori bihar, bakoitza berera itzultzen garenean. Euskaraz egin



Goian, mezuaren zazpi egileak, behean, Patxi Flores, Sakanako AEKko arduraduna.

du gorputza. Hizkuntzak eraldaketarako tresnak dira, leku bat ematen digute bizi gaitzen. Euskaraz herri hau eman digu. Horregatik mintzo gara izateaz, egiteaz. Euskaraz egin egiten da, baina izatea ez da edozein gauza. Izatea egotea ere bada, nonbait mugimenduan, borrokan.

Urrats bat eta bestea, aurrekoiei jasoa dakargu ahots berrietan.

Honaino heldu gara, bai, baina ez gara iritsi. Oraina berehala amaitzen da. Azalberrituta datoz munstro zaharrak, baina gorputz bat sortu dugu. Askotarikoa, konprometitua, indartsua. Eta gaur hemen badago, egongo da bihar ere.

Euskara gara eta hemen gaude. Hemen gara eta euskaraz gaude. Aurrera goaz. Bazatuz?

ZORION AGURRAK



Valentina
Zorionak Valentina, apirilaren 4ean 2 urte beteko dituzulako! Maite zaitugu!



ESKELA



Miren Jaka Osés

Arbizuko Andra Mari Ikastolaren sortzailea

Eskerrik asko Andra Mari Ikastolari emandako guztiagatik.
"Gu sortu giñen enbor beretik sortuko dira besteak...."



Andra Mari Ikastolako guraso, langile eta ikasleak

ESKELA

Juan Igoa Agirre

'Antxel'

Intxaurrendotik Herreruen etxia bizi oso bat

Etxarri Aranatz

ESKELA



Miren Jaka Osés

(Cristinaren ama)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin



Arbizuko Udala

ESKELA



M. Esther Arretxe Mendinueta

(Eduerren ama)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin




Arbizuko Udala

DENBORA-PASAK



24.korrika *æek*
**Euskara
gara**
Atharratetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra



Kopiatu goiko logoa hemen

Xiberutikan Mendebaldera

ZETAK, Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena

Herensugeren ❶ _____
Santa-Grazitikan
Zarrakaztelura

Eta Errigoraren auzolan ❷ _____
Eskutik eskura
Hori ere bagara

Sorgin baten azken ❸ _____
Itoizko kaleetan

Zer gara euskara bera ez bagara
Maixux eta Erramunen ❹ _____

Maitasun eskutitz baten bide luzea
Xiberutikan Mendebaldera
Junkeraren fandango berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho gaztetan
Gailur berrietan

Basurdearen ❺ _____ gara
Elorretatikan
Agurainaldera

Larruz eraikitako milaka ❻ _____
Dajlatik Gazara
Hor da gure gogoa

Ezkerraldeko AEK
Saretuz ❼ _____

Artzain gazte bat kontu zaharretan
Bariñako Bidane Baskaran

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)

❸ _____ bat gâteau batean baino
Euskara gara

Ilargirik gabe mareak ❹ _____
Nola bestela?
Nola bestela?

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)



- ❶ aztarna, buztana, itzala
- ❷ eredu, proiektua, taldea
- ❸ abestia, kanta, bertsoa
- ❹ etxean, herrian, ertzean
- ❺ aztarna, buztana, itzala

- ❻ etxola, txabola, borda
- ❼ mundua, bizitza, lurra
- ❸ Lauburu, Izar, Gurutze
- ❹ behera, gora, erdira

Ze herrietatik pasa zen Korrika?

W E L G T N L Z B I D A R R A I I Q B A
 A P P O G K G O G X P M I Y D Q G M W O
 D I A P D F G K E B W A T E L E P Z E L
 O D Z Z N N M Y R K Y O E N F R G T W Q
 E F K T A M O Y E Q R H X O B A N O S I
 K G M B N G W U N H G Y K H D U L Q O O
 V L C S S A R C D C E T K Z C U H Q P H
 U J U B E Y G A I L A N U I T K X R A K
 L E J D O G S I A G A L T T P I U V P P
 A U L X F R U S I R A Z O I R R E B I C
 V J A A J V O R N F V M G A R T Q I Q D
 T T E Y P E N S A C O Q M D N U J M G U
 W B S T R A Z A E F I S A L D M E M O Z
 C X H U Q I N T R R D X T A V F A S L T
 V R C N B Q V O I B R A M R H K U A M L
 Y Z L A C G E F D R A A N R P P A S C A
 X U R G Z O I A R R A R L A Z O J U Y Z
 I R J Z L E K O R N E T T G O G J H S T
 A L M O M S L V V C D N Z E E P U I U I
 P V J S U V L D V D Z O W U T L Z Y Q D

- ARRAIOZ
- AZAGRA
- BERRIOZAR
- BIDARRAI
- DONAPALEU
- EZPELETA
- GARRALDA
- GERENDIAIN
- IBARRA
- IGANTZI
- ITZALTZU
- LARRESORO
- LEKORNE
- MUTRIKU
- NARBARTE
- OBANOS
- PUIU
- SEGURA
- UZTARITZE
- ZALDUONDO

Sudokruak

	1			6			5	
2		6			4	1	7	
		4	5			9		2
		5	4		6			3
		9	7		8	4		
						7	1	
			2				3	
5								9
	3		6	5		2		

Erraza

		3						7
							4	2
9		5						
1								3
					9		7	2
6					3	8		
	1		4					5
		4	7					
			2	5	3			

Zaila

Korrikaren historia

Lot itzazu leloak eta kantuak dagozkion Korrikaren edizioarekin

Herri bat geroa lantzen	1. Korrika 1980	Ongi etorri lagun! Betagarri
Zuk ere esan bai euskarari	5. Korrika 1987	Korrika Oskorri
Hizkuntza, kultura, mundu batzuk	8. Korrika 1993	Ni ere bai Afrika Bibang
1 + 1 = hamaika. Zu eta ni euskaraz	11. Korrika 1999	Aide Korrika Tapia eta leturia
Denok maite dugu gure herria euskaraz	13. Korrika 2003	Euskalakari Gose
Ni ere bai	14. Korrika 2005	Zirkorrika Xabier Zabala
Euskara, zeurea	16. Korrika 2009	Xiberutikan mendebaldera ZETAK, Maixux eta Erramun
Harro herri	17. Korrika 2011	Korrika Xabier Amuriza
Zuk ere esan bai euskarari	20. Korrika 2017	1 eta 1 Joxe Ripiau
Euskara gara	23. Korrika 2024	Harro herri Mursego
Euskalakari	24. Korrika 2026	Gero bat gaurdanik Laboa eta Ordorika



Non daude Euskal Herriko herri hauek?



Ras yr Iaith



Ar Redadeg



Correlingua



Rith



La Passem



Corrilingua



Correllengua



Lefkantun



Sprochrenner



Korrika ahizpak munduan

Zein hizkuntzaren alde egiten dute korrika munduko beste txokoetan?

Galesaren alde

Mapuzugunaren alde

Alsazieraren alde

Bretoieraren alde

Katalanaren alde

Galegoaren alde

Okzitanieraren alde

Korsikeraren alde

Gaelikoaren alde



1000. lekuko hartzea: Guaixe fundazioa.



1001. lekuko hartzea: Ziordiko elkarte eta Gazte Asanblada.



1002. lekuko hartzea: Ziordiko Udala.



1003. lekuko hartzea: Amarauna.



1004. lekuko hartzea: Gerra anaiak enpresa.



1005. lekuko hartzea: Euskal ardi moztailen elkarte.



1006. lekuko hartzea: Olatzagutiko Udala.



1007. lekuko hartzea: Maisuenea gaztetxea, Olatzagutiko eskola eta Ithoetak.



1008. lekuko hartzea: Iñigo Aritza ikastola.



1009. lekuko hartzea: LH IIP Sakana.



1010. lekuko hartzea: Copreciko langileak.



1011. lekuko hartzea: Altsasuko BHI institutua.



1012. lekuko hartzea: Mekalsako langileak.



1013. lekuko hartzea: Kukuerreka elkartea.



1014. lekuko hartzea: Altsasuko gaztetea.



1015. lekuko hartzea: Altsasuko Udala, Mari Paz, Javier Ziordia eta Altza burua.



1016. lekuko hartzea: Zelandi eskola publikoa.



1017. lekuko hartzea: Iñigo Aritza ikastola.



1018. lekuko hartzea: Altsasuko Dendari elkartea.



1019. lekuko hartzea: Ramoseko langileak.



1020. lekuko hartzea: Unamuno pentsuak.



1021. lekuko hartzea: Gozategi taldea.



1022. lekuko hartzea: Aitziber eta Tintinurri elkarteak.



1023. lekuko hartzea: Urdiaindarrak.



1024. lekuko hartzea: Urdiaingo Udala.



1025. lekuko hartzea: Urdiaingo Herri eskola.



1026. lekuko hartzea: Magotteauxeko langileak.



1027. lekuko hartzea: Iturmendiko Udala.



1028. lekuko hartzea: Iturmendiko elkarteak, eskola eta Gazte Asanblada.



1029. lekuko hartzea: Bakaikuko Gazte Asanblada.



1030. lekuko hartzea: Bakaikuko Udala.



1031. lekuko hartzea: Bakaikuko elkartea.



1032. lekuko hartzea: Gerra Anaiak.



1033. lekuko hartzea: Bikain garajea.



1034. lekuko hartzea: Eseki.



1035. lekuko hartzea: Karriestu elkarte.



1036. lekuko hartzea: Hartzabal elkarte.



1037. lekuko hartzea: Andra Mari ikastolako ikasleak.



1038. lekuko hartzea: Etxarri Aranazko Udala.



1039. lekuko hartzea: San Donato eskola.



1040. lekuko hartzea: Larrañeta elkarte



1041. lekuko hartzea: Andra Mari ikastolako langileak.



1042. lekuko hartzea: Andra Mari ikastola.



1043. lekuko hartzea: Jeingenekoa.



1044. lekuko hartzea: Lizarragatarrak.



1045. lekuko hartzea: ZETAK.



1046. lekuko hartzea: Lizarragabengoako kontzejua eta Bordatxo elkarte.



1047. lekuko hartzea: Arbizuko Gazte Asanblada.



1048. lekuko hartzea: Arbizuko Udala.



1049. lekuko hartzea: Arbizuko Herri eskola.



1050. lekuko hartzea: Sakana Koop.



1051. lekuko hartzea: Lakuntzako Herri eskola.



1052. lekuko hartzea: Lakuntzako Udala.



1053. lekuko hartzea: Lakuntzako Pertza elkarte.



1054. lekuko hartzea: Biltokiko gazteak.



1055. lekuko hartzea: Aldabide elkarte.



1056. lekuko hartzea: Arruazu.



1057. lekuko hartzea: Poke gaztak.



1058. lekuko hartzea: Sakanako Mankomunitatea.



1059. lekuko hartzea: Ochoak.



1060. lekuko hartzea: Uharte Arakilgo Herri eskola eta Aralar mendi elkarte.



1061. lekuko hartzea: Uharte Arakilgo Udala.



1062. lekuko hartzea: Magotteaux Navarra SA.



1063. lekuko hartzea: Koldo eta bere kuadrilla.



1064. lekuko hartzea: Txalaparta argitaletxea.



1065. lekuko hartzea: Emun Koop. E.



1066. lekuko hartzea: Irañetako Udala.



1067. lekuko hartzea: Irañetako euskara taldea.



1068. lekuko hartzea: Uxue eta familia handia.



1069. lekuko hartzea: Nafarroako basozainak.



1070. lekuko hartzea: Txeparrak.



1071. lekuko hartzea: Ihabarko kontzejua.



1072. lekuko hartzea: Ilundain fundazioa.



1073. lekuko hartzea: Nafarroako LABeko langileak.



1074. lekuko hartzea: Hiriberriko kontzejua eta Txitera elkarte.



1075. lekuko hartzea: Aresoko eragileak.



1076. lekuko hartzea: Aresoko Udala.



1077. lekuko hartzea: Iruñerriko AEK.



1078. lekuko hartzea: Ochoa de Olza institutuko langileak.



1079. lekuko hartzea: San Fermin ikastolako langileak.



1080. lekuko hartzea: Urritzolako herria eta Urritzolako kontzejua.



1081. lekuko hartzea: Hydroko langileak.



1082. lekuko hartzea: Etxarrengo kontzejua.



1083. lekuko hartzea: Orritz dantza taldea.



1084. lekuko hartzea: Iratxo elkarte.



1085. lekuko hartzea: Aizpea .



1086. lekuko hartzea: Atakondoa ikastetxeko eskola komunitatea.



1087. lekuko hartzea: Irurtzungo Udala.



Guaixeko lantaldea Korrikan



1088. lekuko hartzea: Pikuxar elkarte.



1089. lekuko hartzea: Etxeberriko Kontzejua.

Laguntzaileak



Babesleak


FONTANERÍA-ITURGINTZA
ALEJO
FONTANERÍA-CALEFACCIÓN-GAS
ITURGINTZA-KALEFAKZIOA-GASA

A ALTSASUKO
INSTITUTUA

A RBIZUKO KIROLDEGIA



Etxarri Aranazko Udala



gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA



Iturmendiko Udala



**@LUR
GEROA**



SAKANAKO
Herri-Eskolak
euskal eskola publikoak

Mank
s a k a n a

Sakanaoptika
optometria • audiometria • kontaktologia



Eskerrik asko!



"Euskararen aldeko testigantza daramat, ardura ikaragarria dut!"

KORRIKAKO LEKUKOA

Martxoaren 19an abiatu zen eta 29an Bilbora heldu zen. Eskuz esku milaka istorio bizi izan ditu: muxuak, ezustekoak, erorketak... Korrikaren izpiritua da

Eneida Carreño Mundiñano SAKANA

1 Norbaitek, nonbaiten gorpuztu zintuen. Kontaiguzu.

Remigio Mendiburu artistak diseinatu zuen lehena 1980. urtean eta 1988 arte ibili zen Euskal Herrian barrena. Mendiburu hil ondoren, 1988az geroztik, Juan Gorriti eskultoreak aldaketa txiki batzuekin eginikoa naiz ni, haren kopia naiz. Lehena pagoz egina zen eta ni ezpel arruntaz eginda nago.

2 Nolakoa zara?

Egurrez apaindutako zilindro bat naiz. Zulotxoak dauzkat, goian lau, ondoren beste hiru eta beheko partean beste hainbeste. Neurriei dagokienez, nire aurrekoa zertxobait txikiagoa zen. Hura San Telmon dago ikusgai. Ikurra bukatu zuenean Remigiok, barrukoa hustu zuen eta AEKkoei horrela esan zien, "Zuek ikusiko duzue zer sartzen duzuen hor!". Eta hala egin zuten 1980an.

3 Barruko mezuaren ardura handia duzu, aurtengoak harritu zaitu?

Euskararen aldeko testigantza daramat kilometroz kilometro, eskuz esku, ardura ikaragarria dut noski! Gutzik dakite barruan daramadana nork idatzia den, milaka eta milaka eskuk naramate. Bilboko mezuak hunkitu gaitu, astindu gaitu, nor garen, zer garen eta zer izan nahiko dugun erdigunean jarri du.

4 Zein da goxoen hartu zaituen eskuak?

Bat esatea zaila da. Adineko amonaren esku zimurtua, haurraren tamaina txikikoak, beltzak, txuriak, azal lehorrekoak, usain goxodunak, izerdituta-koak...

5 Esku hartze hunkigarriren bat?

Hemen ere asko. Oinez eta poliki doazenak, ibili ezin eta aulki gurpildunetan doazenak, entzun ezin eta erritmoan doazenak, urteak aurrera joanda ere hitzordua galtzen ez dutenak.

6 Xiberutik mendebalderaino, maitasun eskutitz baten bide luzea.

Zein urrun elkarrengandik Euskal Herriko hainbat herri

eta nola euskarak gerturatzen gaituen. Nola euriari, elurrari, haizeari aurre egiteko gai garen, gauez zein egunez, maitasunak bidea motz egiten duelako.

7 Zer gara euskara bera ez bagara?

Aurtengo leloarekin ezin harroago nago, euskara gara, komunitatea, gorputz bat egin dugu, gurea, baina oso garrantzitsua, ahaztu ezin duguna gaurtik aurrera, bakoitza gurera itzultzen garen.

8 Sakanatik aspaldi ez zaitugu egun argiz ikusi, pozik pasa zara?

Arrazoi duzue, beti ilunpetan eraman nauzue, nahiz eta batzuetan elurrak berak argiztatu gaituen. Gauak badu bere xarma, isiltasunaren oihartzunak, natura gurekin batzen den unea izaten da, Sakandarrak gaueko zoro zoragarri horietako batzuk zarete!

9 1000. leku hartzea berezia izan zen Guaixe Fundazioko komunitatearentzat, zuretzat ere bai?



Guaixe Fundazioaren lantaldearen oharra

Oporretara goaz!
Apirilaren 13an izanen gara lanera bueltan.
Hurrengo Guaixe Astekaria apirilaren 17an argitaratuko da.

Noski, Guaixek sorreratik Sakanari, bailara osoari euskara eman dio, euskara gara eta egunero egunero erakusten dio, erakusten diozue. Euskara bazaretelako, segi gogor euskaraz komunikatzen, euskara egiten eta euskara izaten.

10 Bilbo handiraino eraman zaitugu, harrotu al zara?

Noski harrotu naizela, jendetza bildu da Bilbon, jendetza Euskal Herriko herri eta hirietan barrena, taupadak azkartu zaizkigu, asaldatu gara, nekatu gara, hunkitu gara, baina indarberritu gara ere. Honen guztiaren gainetik aurrerrantz goazen herria gara.

11 Festa handiaren ondoren lotara 25. Korrika arte?

Bai arrazoi duzue, atsedean piska bat behar dut. Bilbon hustu nauzue, baina harro sentiarazi ere bai, hemendik bi urtera itzultzea espero dut eta garen horri eutsi izana espero dut. 7 gazteek irakurritakoa, sentitutakoa, bizitakoa, sortutakoa, urratsetan gauzatzea espero dut. Indarberrituta itzuliko naiz, aurrera goazen sentipenarekin, Hemen gara eta euskaraz gaude, aurrera goaz, ni banago, zu bazatoz?

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabetean euro baten truke

(Errenta aitorenpeko itzulketa kontuan izanda)

Izena

Abizenak

NA/IFZ

Helbidea

Herria

Telefono zenbakia

Emaila

Bankuko kontu korrante zenbakia:

ES _ _ _ _ _



guaixe
fundazioa
948 564 275
618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus

